



ALTUERA MIN.:	610 m.
ALTUERA MAX.:	761 m.
DESNIBELA: ▼ 151 m. ▲ 166 m.	
DISTANTZIA:	7,32 km.
DENBORA:	2 ordu.
ZAILTASUNA:	erraza



» LIZARRUSTI PARKETXEA ~ LAREO URTEGIA ~ LIZARRUSTI PARKETXEA



TOPOGIDA

P. Aparkalekua. Lizarrusti Parketxeko eraikuntzaren alboan den aparkalekuan utziko dugu autoa.

1. Hasiera puntua. Lizarrustiko aparkalekuan bertan emango diogu hasiera ibilbideari, jolaslekua eta piknik gunea lotzen dituen pasabidea jarraituz Lareoko urtegira bidean jartzeko.

2. Lareo seinalea. Pasabidea amaitzean ezkerrera eginez egurrezko hesia igaroko dugu, eta panela alboan dugula GR 20.1 ala 35aren arrasto zuri-gorriak jarraituko ditugu Lareo aldera, pagadian barrena ekinez bide zabalean.

3. Sukaldezarreko koba. Bidean aurrera goazela, hau estutzen joango da, eta harkaitza bertaraino heltzen den gunean eskuinera eta gora eginez koba hau topatuko dugu, leiho txiki bat eta guzti duena. Nahi duena ingura daiteke gune malkar honetara, koba ikusi ondoren berriro bidera itzuliz.

4. Akerretako iturria. Eskuinean dugun harkaitzean topatuko dugu iturri txiki hau, ur freskoa eskainiz aurrera jarraitzeko.

5. Akerretako tunela. Berehala harkaitzean eginiko tunel hau igaroko dugu, bidean erreka hotsa lagun dugula jarraitzeko.

6. Zubia. Maizegi erreka da zubipean igarotzen dena. Zubia igarota Lareotik Etxarri Aranaz eta Lizarrustiko parketxerako argindarra sortzen duen turbina atzean utziko dugu bidea jarraitzeko. Inguruko pago motzei so eginez gero garai batean ikatza egiteko txondor-gunea sumatuko dugu.

7. Malkorburuko leizea. Urtegira heltzeko kilometro eskasa falta zaigunean, eta langa igaro aurretik eskuinean utziko dugu Malkorburuko leizea, non urtegiko ur-soberakinak ezkutatzen diren. Hau ikusi ondoren GR arrastoak jarraituz egingo dugu aurrera.

8. Lareo. Urtegiko pareta hasten den gunera heldu gara eta ezkerrera ekingo diogu itzuliari.

9. Lareoko guardetxea. Eskuinera egingo dugu urtegiaren bira pistaz jarraitzeko.

10. Zelaia. Bidetik kanpo ezkerretara gelditzen den zelai honetan atsedean hartzeko aukera paregabea dugu, deskantsatu ondoren berriro pista jarraituz.

11. GR ez. GR arrastoen kontra, eskuinera hartuko dugu urtegiaren ertzetik jarraitzeko.

12. Lareo trikuharria. Bidearen ezker aldean dagoen trikuharria ikus dezakegu aurrera goazela, galbiderik gabeko bide erosoan jarraituz.

13. Egurrezko zubia. Bikingoen garaiko itxura emanez egindako finlandiar egurrezko zubi bitxia igaroko dugu aldapatxo bat igo aurretik. Ia bira osoa eman diogu jada urtegiari.

= 8. Lareo. Urtegiaren bira amaituta, igoerako bide berdina atzera bueltan egingo dugu, Lizarrustira garamatzan seinalea jarraituz ezkerrera ekinez.

= 1. Amaiera. Ibilbidea hasi dugun puntu berean emango diogu amaiera, aparkalekuaren eta Lizarrusti Parketxearen alboan.

GUNE INTERESGARRIAK



LAREOKO URTEGIA

Lareoko urtegia Malkorburu, Sarastarri, Akaitz eta Alleko mendiek inguratutako parajea, 1989an eraiki zen Agauntza ibaiaren emari ekologikoa eta ataundarren ur hornidura bermatzeko, 20 ha-ko azalera eta 2,35 hm³-ko bolumena dituelarik.



AKERRETAKO TUNELA

1916an Arana deituradun batek eginiko tunela. Harkaitzean landuriko pasadizo hau garai batean txondor-ikatza eta harria menditik ateratzeko eta beranduxeago Quifosa enpresan alkohola egiteko pago-egurra garraiatzeko ere erabili zen.



LIZARRUSTI PARKETXEA

1887an eraiki zen mikeleteek Gipuzkoa eta Nafarroa arteko joan-etorria zain zezaten, eta horregatik Mikelete Etxe bezala ere ezagutzen da. Egun, puntu hau Aralar Parke Naturalerako sarrera nagusietako bat bihurtu denez, bertan kokatzen da Aralarko interpretazio zentroa, aterpetxe eta taberna funtzioa ere betez (egun, berritze-lanak direla eta itxita; bitartean informazio-bulegoa San Gregorio auzoko elkargunean).